

JAKINARAZTEN DA behin-behineko Alkateak 2023ko abenduaren 29an, ondorengo Dekretu hau eman duela:

“Begarako udalak erabaki zuen enplegua bultzatzeko Lanbideren 2023ko programaren barnean kale garbiketako bi peoi espezialista kontratatzeko dirulaguntza eskatzea.

2023ko abenduaren 20an emandako dekretuan jasota bezala interesa zutela adierazi zuten izangaiak deitu ziren, bigarren prozesu baten barruan, frogagiteko.

Bigarren prozesu honetan izandako emaitzak kontutan izanda, epaimahaiak behin behineko puntuazio orokorrak onartu zituen eta Uxue Larrañaga Alonso izangaia kontratatzeko proposamena egin zuen. Emaitzen aurka erreklamaziorik jaso ez denez behin betikotzat jotzen dira.

Horiek kontutan izanda, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: Uxue Larrañaga Alonso izangaia kontratatzea 6 hilabeterako eta %100eko dedikazioarekin eta deialdia arautu duten oinarrietan jasotako baldintzekin.

BIGARRENA: Kontratu hau 2023ko abenduaren 29an sinatu eta hasia, bi hilabeteko frogaldiarekin.

HIRUGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea Pertsonal Sailean eta dagokion departamentuko arduradunari. Halaber, udaleko web orrian argitaratzea.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau udaleko web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpen hau udaleko web orrian argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Begara, 2023ko abenduaren 29a
IDAZKARIA

SE COMUNICA que el Alcalde el 29 de diciembre de 2023 ha emitido el siguiente Decreto:

“El Ayuntamiento de Bergara acordó solicitar subvención para la contratación de dos peones especialistas de limpieza viaria dentro del programa de Lanbide de fomento de empleo de 2023.

Tal y como se recoge en el decreto emitido el 20 de diciembre de 2023 se convocaron, dentro de un segundo proceso, a las personas aspirantes que manifestaron interés para realizar la prueba.

Teniendo en cuenta los resultados obtenidos en este segundo proceso, el tribunal aprobó las puntuaciones generales provisionales y propuso contratar a la persona aspirante Uxue Larrañaga Alonso. Al no haberse recibido reclamaciones contra las mismas se consideran definitivas.

En este sentido, **HE RESUELTO:**

PRIMERO: Contratar a la persona aspirante Uxue Larrañaga Alonso para 6 meses y con dedicación del 100% y en las condiciones recogidas en las bases reguladoras de la convocatoria.

SEGUNDO: Suscribir e iniciar este contrato el 29 de diciembre de 2023, con un periodo de prueba de dos meses.

TERCERO: Comunicar la presente resolución al departamento de Personal y a la persona responsable del departamento correspondiente. Asimismo, publicar en la página web municipal.”

Recursos contra la resolución:

Contra la resolución que se le notifica, y que es definitiva en vía administrativa, podrá usted interponer recurso contencioso administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al del recibo de esta notificación.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se le notifica podrá Vd. interponer RECURSO DE REPOSICIÓN ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el siguiente al recibo de esta notificación.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

FUNDAMENTOS JURÍDICOS: *Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.*

Bergara, 29 de diciembre de 2023
LA SECRETARIA

